

**DONOSTIAKO NAZIOARTEKO JAZZALDIAREN KOMUNIKAZIO INTEGRALEKO ESTRATEGIA DISEINATU ETA PLANIFIKATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN KLAUSULA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA**

- 1. KONTRATUAREN XEDEA**
- 2. ERAKUNDE KONTRATISTA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**
- 3. ESLEIPEN PROZEDURA**
- 4. ALDAERAK**
- 5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**
- 6. IRAUPENA**
- 7. LIZITAZIOAREN URTEKO GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN GUTXI GORABEHERAKO BALIOA**
- 8. PREZIOA ORDAINTZEA**
- 9. PREZIOAK BERRIKUSTEA**
- 10. PUBLIZITATEA**
- 11. BEHIN BETIKO BERMEA**
- 12. GAITASUN BALDINTZAK**
- 13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**
- 14. BALORAZIO IRIZPIDEAK**
- 15. EBALUAZIO BATZORDEA**
- 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA**
- 17. KONTRATUA ESLEITZEA**
- 18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA**
- 19. KONTRATUAREN ARDURADUNA**
- 20. KONTRATUA GAUZATZEA**
- 21. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK**
- 22. DATUEN BABESA**
- 23. JABETZA INTELEKTUALA ETA IRUDI ESKUBIDEAK**

**24.KONFIDENTZIALTASUNA**

**25.ZIGORRAK**

**26.KONTRATUA LAGATZEA**

**27.AZPIKONTRATAZIOA**

**28.KONTRATUAREN ALDAKETAK**

**29.ENPRESA KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA**

**30.KONTRATUA ETETEA**

**31.HARRERA**

**32.KONTRATUA DEUSEZTATZEA**

**33.ARAUBIDE JURIDIKOA**

**34.JURISDIKZIOA**

**I. ERANSKINA. ABAL EREDUA**

**II. ERANSKINA. ENPRESA LIZITATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK JAKINARAZPENAK JASOTZEKO**

**III. ERANSKINA. AITORPEN ERANTZULEA**

**IV.D. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA**

**V. ERANSKINA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ALORREKO BETEBEHARRAK BETETZEN DIRELA ZIURTATZEN DUEN AITORPEN ERANTZULEA**

**VI. ERANSKINA ADIERAZPENEN NOTARIO AKTAREN EREDUA, ENPRESA LIZITATZAILEAK ESKATZEN DEN KAUDIMENA ZIURTATZEKO EDO GUTXIENEKO GIZA BITARTEKOAK KONTRATURA ATXIKITZEKO KONPROMISOA BETETZEKO BESTE ENTITATE BATZUEN KAUDIMENA ETA GIZA BITARTEKOAK ERABILI BEHAR BADITU**

## **DONOSTIAKO NAZIOARTEKO JAZZALDIAREN KOMUNIKAZIO INTEGRALEKO ESTRATEGIA DISEINATU ETA PLANIFIKATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKI BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN KLAUSULA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren xede da Donostiako Nazioarteko Jazzaldiaren komunikazio integraleko estrategia diseinatu eta planifikatzeko zerbitzua eskaintzea, Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian aurreikusitakoarekin bat etorrita.

Zehazki, jarraian aipatuko diren jarduerak barne hartzen dira VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SAK zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko duen zerbitzuan:

- Jazzaldiaren Komunikazio integraleko Estrategia bat diseinatu eta planifikatzea, Jazzaldiak hedabideetan duen oihartzunaren eta hedabide eta komunikazioko plan horren eraginkortasunaren jarraipena barne hartuta.
- Jazzaldiaren jarduera guztien berri emateko argitaratuko diren prentsa-buletin guztiak idatzi eta hedatzea.
- Prentsa, irrati, telebista eta web orrietako ordezkariekin harremana, hauen eta Jazzaldiaren arteko edozein harreman-maila posibleetan.
- Dokumentuak idaztea, jendeari Jazzaldiaren ekitaldi eta kontzertuei buruz informatzeko paperezko edozein hedabidetan edo Web-ean argitaratzeko.
- Jazzaldiaren ekitaldiak hedabideetan agertzeari buruzko txostena bildu, sailkatu, baloratu eta lantzea.
- Donostiako Nazioarteko Jazzaldiaren komunikazio integralaren diseinu eta planifikazioarekin erlazionatutako beste edozein jarduera.

### **2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA sozietatea (VICTORIA EUGENIA aurrerantzean) da erakunde kontratugilea.

VICTORIA EUGENIAko kudeatzailea da kontratazio-organoa.

### **3. ESLEIPEN PROZEDURA**

Prozedura ireki bidez esleituko da kontratua, eskaintza ekonomiko abantailatsuen egiten duen enpresa lizitzailearen alde, Orri honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

### **4. ALDAERAK**

Ez dira onartzen.

### **5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA**

Honako hauek izango dute kontratu izaera, esleipenaren ondoren egiten den kontratuaz gain: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orri honek, Baldintza Teknikoen Orriak eta enpresa esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.

Enpresa esleipendunak aipatutako agiri guztiak sinatuko ditu kontratuak formalizatzen direnean, guztiak onartzen dituela egiaztatuz.

## **6. IRAUPENA**

Kontratuak bi urte iraungo ditu, formalizatzen den egunaren biharamunetik hasita; bitan hurrenez hurren urtebetez luzatzeko aukera dago, erakunde kontratugileak berak bakarrik hala eskatzen badu. Horrenbestez, kontratuak gehienez ere lau urteko iraupena edukiko du, luzapenak barne hartuta.

Luzapenaren jakinarazpenak kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago egingo dira gutxienez eta derrigorrezkoa izango dira enpresa esleipendunentzat.

## **7. LIZITAZIOAREN URTEKO GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN GUTXI GORABEHERAKO BALIOA**

Lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua 28.350 euroko da, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ) kanpo.

Enpresa lizitatzailleek kopuru hori murriztu dezakete aurkezten duten proposamen ekonomikoan.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoari kalterik egin gabe, enpresa lizitatzailleek eskainitako urteko prezioan kontratuaren xedea den zerbitzua eskaintzeko beharrezko gastu guztiak barne hartuko dira, betiere Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orriari adierazten denaren arabera. Ez da a posteriori onartuko alde aurretik azken prezioan barne hartu ez diren kontzeptuengatik fakturaziorik.

Enpresa lizitatzailleek eskainitako urteko prezioaren barruan, zerbitzua eskaintzeko edozein kontzeptuak eta zerbitzuak eskaintzeko behar diren langile guztien gastuak barne hartuta daudela ulertuko da (besteak beste, soldadak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, baja edo gaixotasunagatik bajengatik ordezkapenak, banakako istripu-aseguruak eta abar), bai eta zerbitzuak sortzen dituen zergak (BEZa izan ezik. Lizitatzailleek bereizirik adieraziko dute), gainerako aseguruak, baimenak, garraioko eta joan-etorrien gastuak, lizentziak eta gainerako gastu orokorrak ere.

Enpresa lizitatzailleek eskainitako prezioetan sartuta egongo dira, halaber, zerbitzua eskaintzeko enpresa kontratistak erabili behar dituen baliabide, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta lanabesak.

Enpresa lizitatzailleek kontu-sail independente batean adieraziko dute VICTORIA EUGENIAk jasan beharko duen BEZa.

SPKLTBren 88. artikulua ondo etarako, kontratuaren balio zenbatetsia (BEZa kanpo) 113.400 euro da.

Balio zenbatetsi hori SPKLTBren 88.5 a) artikulua arabera kalkulatu da. Hau da, kontuan hartu da aurreko hamabi hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen

benetako balioa, eta kontratuak irauten duen denbora guztiagatik (luzapenak barne) zenbatu da.

## 8. PREZIOA ORDAINTZEA

Hilero egingo da prezioaren ordainketa, VICTORIA EUGENIAK dagokion faktura onartu eta gero.

VICTORIA EUGENIARI eskainitako zerbitzuengatik hilero ordaindu beharrekoa, enpresa lizitatzailerak Orri honen 1. Klausulan adierazitako zerbitzuengatik eskainitako urteko prezioa 12 hilabetetan zatituz kalkulatu da.

Enpresa kontratista faktura hilero luzatuko beharko du, kasuan-kasuan dagokion hilabetea amaitu eta hurrengo hilabeteko 15. eguna baino lehen. Fakturan eskainitako zerbitzuak banakatuta adieraziko dira.

VICTORIA EUGENIAK eskainitako zerbitzuen prezioa ordainduko du, zerbitzuak eskaini diren hilabetea amaitu eta hogeita hamar egun naturaleko epean, betiere faktura luzatu bada lehen aipatutako epean eta VICTORIA EUGENIAK ontzat eman badu aldez aurretik.

## 9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Eskainitako prezioa ez da urtero berrikusiko.

## 10. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta VICTORIA EUGENIAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Esleipena VICTORIA EUGENIAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta VICTORIA EUGENIAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

kontratugilearen profileraz sartzeko: <http://www.donostiakultura.com>.

## 11. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren enpresa esleipendunak 4.000 euroko behin betiko bermea osatuko du kontratuko betebeharrak betetzeko.

Aipatutako erakunde kontratugileak eskaera egiten bada, berme hori diru bihurtuko da.

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen enpresa lizitatzailerak hamar egun baldiodun edukiko ditu aipatutako bermea eratzeko, Kontratazio Organoaren eskakizuna jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako edozein modutan era daiteke bermea.

Eskudirutan egiten bada, Kutxabank 2095 5381 15 1063470826 kontu korrontean egingo da.

Abal moduan eratuz gero, agiri honi **I. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Bermea eratu dela ziurtatzeko ezin da bitarteko elektronikorik erabili.

Bermea SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme epea igaro ondoren eta enpresa kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituzten.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratugileak aldeko txostena eman beharko du.

Bermearen gainean enpresa kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, enpresa kontratistak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost egun naturaleko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, behin betiko bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Hamabost egun naturaleko epea utziko da bermea egokitzeke, enpresa kontratistari aldatzeko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

## 12. GAITASUN BALDINTZAK

Prozedura honen ondorioetarako, VICTORIA EUGENIArekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa eta kontratatzeko debekurik ez duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuaren zehaztapen teknikoak edo prestaketa dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte hartze horrek lehia librerako murrizketak eragin baditzake edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailerik, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko beharrezkoa den lanbide edo enpresa gaitasuna eduki behar dute.

Pertsona juridikoek kontratuaren esleipendun izateko aukera izango dute, baldin eta, kontratuko prestazioak haiei berez dagozkien helburu, xede edo jardueresparrukoak direnean, haien estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Nolanahi ere, VICTORIA EUGENIArekin kontratatzeko ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetako enpresa ez-espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuan zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunetik kanpoko estatuetakoko pertsona fisikoek edo juridikoek jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

VICTORIA EUGENIArekin kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

### **Kaudimen ekonomiko eta finantzariorako eta tekniko edo profesionalerako gutxieneko baldintzak:**

- Azken 3 urteetan urte bakoitzeko 1.000.000 euroko gutxieneko aurrekontuarekin eta nazioarte-mailan musika, zinema edo bestelako diziplina artistikoko jaialdi batean, gutxienez, komunikazio-estrategia diseinatu eta planifikatzeko lanetan esperientzia.

Horrez gain, enpresa lizitatzailerak konpromisoa hartu beharko dute, kontratua gauzatzeko gutxienez honako giza bitarteko hauek atxikitzeko:

- Komunikazioen Zientzietan lizentziatura edo honen baliokidea duen pertsona bat. Honek, musika, zinema edo nazioarte-mailako beste edozein arte-diziplinako jaialditan Prentsa Arduradunaren lana betetzen zortzi urteko esperientzia, gutxienez, egiaztatu beharko du.

Gainera, pertsona horrek euskara, ingeles eta frantsesean erdi-mailako ezagutza izan beharko du. VICTORIA EUGENIAk erabakiko du nola ziurtatu.

Kontratua egiteko edo kontratura gutxieneko giza bitartekoak atxikitzeko konpromisoa betetzeko beharrezkoa den kaudimena ziurtatzeko, beste erakunde batzuen kaudimena edo bitartekoak erabiliko dituzten lizitatzailerak, erakunde horiekin dituzten harremanen izaera juridikoa edozein dela, Notarioak ziurtatutako idatzi bat aurkeztuko dute (**VI. eranskin**eko ereduaren arabera), eta honako alderdi hauek adieraziko dituzte kontratuan inplikatzeko diren erakunde horiek: enpresa lizitatzailerak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzen eragina ezagutzen dutela; aipatutako kaudimena dutela (ziurtagiria aurkeztu behar da, **13. Klausulan** adierazten den moduan); eta aipatutako enpresa lizitatzailerak esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak uzteko borondate ezeztazina (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuko dute, eta bitartekorik ordezkatu edo aldatu behar bada, Administrazioak berariaz baimendu beharko du). Idatzi hori aurkeztuz gero, VICTORIA EUGENIAK konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta enpresa lizitatzailerak hori esleipendun gertatzen bada.

### **13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA**

Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela Orri hau, Baldintza Teknikoen Orri osoa eta kontratuari lotutako gainerako dokumentazioa, inongo salbuespenik gabe.

Orri hau eta Baldintza Teknikoen Orria kontratugilearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan aztertu ahal izango da (Konstituzio Plaza, 1 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailleek **HIRU GUTUN AZAL ITXI** aurkeztuko dituzte (**A, B eta C**) DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan (Konstituzio Plaza, 1 20003 Donostia), erregistro-ordutegiaren barruan (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; udan 9:00etatik 13:30era) (A gutun-azala salbuespena da, bakarria izan baitaiteke enpresa lizitatzaillea bi edo hiru loteetara aurkezten bada), horretarako GAAn, BOEn eta EBAOn argitaratzen den lizitazio-iragarkian ezarritako epearen barruan. Gutun-azal horietan beranduago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute eta guztietan jarriko dute xede den kontratazioa, lizitatzen den lotea, enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izena eta abizenak eta izaera, telefono-zenbakia eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, Orri honen **II. Eranskineko** ereduaren arabera.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Ordutegi muga hori ez da ezarriko proposamenak postaz bidaltzen badira. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko azken egunaren edozein ordutan aurkeztu ahal izango dira; betiere, ondoren datorren paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badira.

Enpresa lizitatzailleak proposamena postaz bidaltzen baldin badu, bidali duen eguna egiaztatu beharko du postetxean, eta eskaintza posta bidez bidali duela adierazi beharko dio DONOSTIA KULTURARI egun bereko telex, fax edo presako telegrama bidez (ondorengo zenbakira: 943 48 11 89) edo egun berean presazko telegrama bat bidaliz. Proposamena bidali izana posta elektronikoaren bidez ere adierazi ahal izango da. ([donostiakultura@donostia.org](mailto:donostiakultura@donostia.org)). Posta elektronikoaren bidez jakinarazteak baliorik izango badu, nahitaezkoa izango da jasota egotea bai jakinarazpenak bidali izana, bai jaso izana, bai haien eduki osoa; eta igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzea.

Halakoetan, kopia bat inprimatu eta erregistratuko da, gero espedienteari eransteko.

Bi baldintza horiek betetzen ez badira, jakinarazpenean adierazitako epea igaro ondoren jaso ezean, dokumentazioa ez da onartuko.

Adierazitako dataren ondoren 10 egun natural igaro eta proposamena hartu ez bada, ez da inola ere onartuko.



Gutun azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu, eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua jasoko du.

## **A gutun azala.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"**

Enpresa lizitatzailleek kontratatze gaitasuna ziurtatzeko gutun-azal bat aurkeztuko dute, honako agiri hauekin:

1. Enpresa lizitatzailleak eta, hala badagokio, bere ordezkariak, jarduteko gaitasuna duela ziurtatzen duten agiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo sorrera agiria, Estatutuak edo sorrera egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jarduera arautzen duten arauak). Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridikoaren motaren arabera dagokionean.

- Europar Batasuneko estatuetako enpresaburu ez espainiarren jarduteko ahalmena frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiria, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

- Gainerako enpresaburu atzerritarren kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-esparruko kontsuletzeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko ahalmena frogatzeko Nortasun Agiri Nazionala aurkeztuko dute, edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da.

- Ordezkari gisa aurkezten diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu, dagokion pertsona juridiko motaren arabera.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuek elkarte eratzeko eratzeko dutenen izenak eta ezaugarriak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahalduen bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahalduen horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handi samarreko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

2. SPKLTBren 60. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen lizitatzaillearen aitorten erantzulea, **III. Eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera.

Enpresa lizitatzailleak indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen aitorten erantzulea barne hartuko da. Eskaintza ekonomiko abantailatsuena egiten duen enpresa lizitatzailleak aipatutako baldintza betetzen duela ziurtatuko du, eta horretarako 10 egun balioduneko epea edukiko du, VICTORIA EUGENIAK xede horrekin bidaltzen dion jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

3. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzeko dokumentuak, **12. Klausulan** aurreikusitakoaren arabera.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala ondoren adierazitako moduan ziurtatuko da:

Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan garrantzitsuenen zerrenda bat, kopuruak, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adieraziz. Halaber, dagokion jaialdiaren aurrekontua ere adieraziko da.

Eskainitako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak luzatu edo ikus onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean edo, hartzailea subjektu pribatua bada, honek luzatutako ziurtagiri baten bitartez. Ziurtagiri horren ordez enpresaburuaren aitortpena aurkeztu ahal izango da.

4. Kontratua gauzatzeko, gutxienez, **12. Klausulan** aipatzen diren giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa.

Kontratura atxikitako giza bitartekoei dagokienez, **12. Klausulan** adierazten diren baldintzak betetzen direla justifikatzen duten titulazioak eta curriculum vitae-a aurkeztuko dira.

Konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLTBren 223. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, VICTORIA EUGENIAK kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

5. Hala badagokio, exijitutako kaudimena edo gutxieneko giza baliabide eta baliabide material zehatzak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaillea beste erakundeen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu nahi bada, adierazpenen notario-akta, **VI. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

6. Enpresa atzerritarrek Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioa onartzen dutela adierazten duen berriazko aitortpena aurkeztu behar dute, kontratua garatzean zuzenean zein zeharka izan daitezkeen gorabehera guztietarako; edozein kasutan, uko egiten zaio enpresa lizitatzailari dagokion foru atzerritarri.

7. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

8. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzeari buruzko erantzukizunpeko aitortpena, **V. eranskinaren** arabera.

## Oharrak:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaille eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzailleek, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, b) atalean aipatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, enpresa lizitatzailleak ziurtagiriak adierazitakoa aldatu ez dela adierazten duen erantzukizunpeko aitortpen sinatu bat aurkeztuko du.
- (ii) VICTORIA EUGENIAK eskubidea du lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.
- (iii) Atzerriko enpresek dokumentazio guztiaren gaztelaniarako edo euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.

## B gutun azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Enpresa lizitatzailleek proposamen teknikoari buruzko gutun-azal bat aurkeztuko dute eta honako alderdi hauek jasoko dituzte, garrantzitsuenetik hasita:

- Kronograma bat, kontratua indarrean egongo den lehen bi urteetan garatuko diren jardueren plan zehatz batekin, eta berau garatzeko metodologiaren deskribapena, Baldintza Teknikoen Orriko **3. Klausulan** ezarritakoaren arabera.
- Helburuen urteko definizioa.
- Donostiako Nazioarteko Jazzaldia hedatu eta ondoen sustatzeko estrategiak.
- Kontratuaren esparruan egiteko zereginen definizioa, antolakuntza-proposamena eta kontratua gauzatzeko erabili nahi dituzten informazio-kanalen zerrenda.
- Baldintza Teknikoen Orrian adierazitakoa kontuan hartuta, **12. Klausulan** eskatzen den gutxiengotik at modu osagarrian kontratura atxikiko diren giza bitartekoak. Curriculum vitae-a, titulazioak, prestakuntza eta beste edozein berariazko ezagupen zein eskainitako kontratuaren xedearen antzekoak diren zerbitzuak adieraziko dira.
- Kontratua gauzatzeko interesgarritzat jotzen den edozein alderdi.

## C gutun azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Enpresa lizitatzailleek orri honi **IV.D Eranskin** gisa txertatzen zaion ereduaren arabera idatzitako proposamen ekonomikoa aurkeztuko dute.

Proposamen ekonomikoa makinaz idatzita aurkeztuko da, eranskinik, zuzenketarik edo ezabaketarik gabe. Dokumentu horietan aldaketarik, hutsunerik edo akatsik egotea proposamena atzera botatzeko arrazoia izan daiteke.

VICTORIA EUGENIAk, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, A, B eta C gutun-azaletan aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan edo zirkunstantzietan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua baliogabea izan daiteke, enpresa kontratistari egozteko moduko arrazoi ondoz kontratua ez betetzeagatik.

Behin kontratua esleitu eta urtebeteko epea amaitzen denean, VICTORIA EUGENIAk enpresa lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta lizitatzailleek ez badute jaso.

## 14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio irizpideak, dagokien haztapenez adierazita, honako hauek dira:

1. Proposamen teknikoa: 70 puntu gehienez ere.

Lizitatzailleak egindako proposamen teknikoaren edukia baloratuko da, aurreko **13. klausulan** adierazitako garrantzi-ordena kontuan hartuta, eta honela banakatuko dira gehienezko puntuazioak:

- Kronograma bat, kontratua indarrean egongo den lehen bi urteetan garatuko diren jardueren plan zehatz batekin, eta berau garatzeko metodologiaren deskribapena, Baldintza Teknikoen Orriko 3. Klausulan ezarritakoaren arabera. 15 puntu arte
  - Helburuen urteko definizioa: 15 puntu arte
  - Donostiako Nazioarteko Jazzaldia hedatu eta ondoen sustatzeko estrategiak: 10 puntu arte
  - Kontratuaren esparruan egiteko zereginen definizioa, antolakuntza-proposamena eta kontratua gauzatzeko erabili nahi dituzten informazio-kanalen zerrenda: 10 puntu arte
  - Baldintza Teknikoen Orrian adierazitakoa kontuan hartuta, 12. Klausulan eskatzen den gutxiengotik at modu osagarrian kontratura atxikiko diren giza bitartekoak. Curriculum vitae-a, titulazioak, prestakuntza eta beste edozein berariazko ezagupen zein eskainitako kontratuaren xedearen antzekoak diren zerbitzuak adieraziko dira: 10 puntu arte
  - Kontratua gauzatzeko interesgarritzat jotzen den edozein alderdi. 10 puntu arte
2. Proposamen ekonomikoa: 30 puntu gehienez ere.

Ondorengo jarraibideen arabera baloratuko dute:

- Lizitazioan %0-20 arteko beherapenen puntuazioa kalkulatzeko, eskainitako portzentaje-beherapena bider 1,4 egingo da.
- % 20tik gorako beherapenen "p" puntuazioa kalkulatzeko, "b" portzentaje-beherapena hartuko da kontuan eta formula hau jarraituko da:

$$p = 30 - 28 / (b - 16)^2$$

## 15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN Kontratazio Ataleko ordezkari batek.
- VICTORIA EUGENIAko Musika Unitateko teknikari bat.
- DONOSTIA KULTURAKo Musika Unitateko zuzendaria.

## 16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak A gutun azaleko ("Kontratatzeko gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta eraz. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik edo ez-egiterik antzemanaz gero, hiru egun balioduneko epea utziko da, gehienez ere, enpresa lizitatzailerak akats edo ez-egite horiek konpontzeko.

Jarraian, B gutun azala irekiko da, proposamen teknikoa biltzen duena, berori azertu eta baloratzeko.

C gutun-azaleko proposamen ekonomikoen irekiera publikoki egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaie onartutako lizitatzailerak guztiei, **II. Eranskinaren** arabera jakinarazpenak egiteko aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Kontratugilearen profileen argitaratuko da guztia ([www.donostiakultura.com](http://www.donostiakultura.com)) 48 ordu lehenago gutxienez.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren enpresa lizitatzailerak, betiere horrela egiteko eskatzen badute.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitzean, proposamenak azertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO aurrerantzean) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoietan nahastuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztu diren proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, handienetik txikienera sailkatuak, eta **14.**

**Klausulan** ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekonomikoki eskaintza abantailatsuena zein den adieraziko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamena txosten juridikoaren pean jarriko da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko abantailatsuena identifikatzeak ez du eskubiderik sortzen proposatutako enpresa lizitatuaren alde.

## 17. KONTRATUA ESLEITZEA

Esleipenerako enpresa lizitatuak aukeratzeko, Kontratazio Organoa bat etorriko da, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Aitzitik, Kontratazio Organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko identifikatuko ditu.

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko abantailatsuena egin duen enpresa lizitatuari, eta enpresa lizitatuak hamar egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzen duten agiriak.

Esleipendunak EJZn, kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela frogatu beharko du. Horretarako, alta-agiria aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldiari baldin badagokio, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Edozein modutan, aipatutako zergan baja hartu ez dela ziurtatzen duen erantzukizunpeko aitortpen bat aurkeztuko da.

- Kontratua gauzatzeko hitz emandako baliabideak benetan esleitu izanaren egiaztagirak.
- Orri honen **11. klausulan** aurreikusitako behin betiko bermea osatu dela ziurtatzen duen frogagiria.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratzeagatik sortutako gastuak ordaindu izana ziurtatzen duen egiaztagiria.
- Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartearen lege-sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa-elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratuak iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

Eskatutako guztia epearen barruan betetzen ez bada, enpresa lizitatuak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo enpresa lizitatuari (eskaintzen sailkapenaren arabera aukeratuko dira lizitatuak).

Kontratazio Organoak aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan erabakiko du kontratuaren esleipena; gehienez ere bi hilabeteko epea edukiko du, proposamenak irekitzen diren egunetik hasita.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitzaileei jakinaraziko zaie, Orri honen **II. Eranskin**eko ereduaren arabera eta, aldi berean, VICTORIA EUGENIAko kontratugilearen profilean argitaratuko da.

## 18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatua formalizatuko da 15 egun balioduneko epearen barruan, esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kontratuak edozein erregistro publikora sartzeko balioko du.

Enpresa esleipendunak, hala ere, kontratua eskritura publiko bilakatu dadin eskatu ahal izango du; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta VICTORIA EUGENIAren kontratugilearen profilean argitaratuko da. Argitalpena kontratua esleitzen denetik berrogeita zortzi egun naturaleko epean egingo da, gehienez ere.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako kontratua formalizatzeako iragarkiaren gastuak.

## 19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko bat edo juridiko bat izan daiteke, VICTORIA EUGENIAren barrukoa edo kanpokoa.

Enpresa kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

## 20. KONTRATUA GAUZATZEA

Hain zuzen ere, honako baldintza hauen arabera gauzatuko da kontratua:

- Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta menturaz gauzatuko da.
- Kontratua gauzatzeko kontuan hartuko dira kontratuaren edukia eta baldintzak, Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orria, Baldintza Teknikoen Orria eta enpresa kontratistak aurkeztutako eskaintza, eta VICTORIA EUGENIAk ematen dituen jarraibideak.
- Kontratua VICTORIA EUGENIAk zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuta gauzatuko da. VICTORIA EUGENIAk kontratuko betebeharrak zuzen betetzen direla eta

guztiak behar den bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, VICTORIA EUGENIAk egokitzat jotzen dituen kanpo-laguntzak jasoko ditu, kontratuko betebeharrak behar den bezala betetzen direla egiaztatzeko edo auditoria egiteko, bai eta lana kalitate maila egokiarekin garatzen dela egiaztatzeko ere.

Enpresa kontratistak VICTORIA EUGENIAk zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du.

Enpresa kontratistak ez du oztoporik jarriko VICTORIA EUGENIAk egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.

- Enpresa kontratistak zerga esparruko, lan esparruko, Gizarte Segurantzako eta laneko arriskuen prebentzioko indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu, zerbitzua egiteko enplegatzen dituen langileei dagokienez. Xede horrekin, langileek esparru horretan beharrezkoak dituzten prestakuntza ikastaroak eman beharko ditu.

Enpresa kontratistaren ardura da, halaber, langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen dutela eta Kontratazio Organoak funtzionamendu orokorrerako ezar dezakeen araudia betetzen dutela ziurtatzea.

Langile guztiak enpresa kontratistaren mendekoak dira. Enpresa kontratistarenak dira bere enpresa-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio VICTORIA EUGENIARI erreklamaziorik egin dagozkion lan-harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Enpresa kontratista izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). VICTORIA EUGENIAk ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, enpresa kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrei dagokienez. Era berean, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu zerbitzua egitean gertatutako ezbeharren ondoriozko erantzukizunak.

- Enpresa kontratistak 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak eta Datu Pertsonalak Babesteko denak (DBLO aurrerantzean), eta berau garatzeko araudiak ezarritako betebeharrak beteko ditu, datu pertsonalik erabiltzen badu. Hala izanda, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak, bere jardueren esparruan, egiten duen datu pertsonalen edozein tratamendu, eta tratamendu horren Arduradun den aldetik, bere kontura eta bere erabakiz egiten duela ulertu behar da, Orri honen **22. klausulan** berariaz ezartzen dena kontuan hartu gabe.



- Enpresa kontratistak lana ondo eta kontratueta hitzartutako epeen barruan egiteko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko osagarriak jarri beharko ditu, eta bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatu beharko ditu. Kasu horretan, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu bere ardurapeko langileekin

## 21. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Honakoak funtsezko kontratu-betebeharrak:

- Kontratua betetzea, bertako klausuletan, aplikazio-orrietan eta VICTORIA EUGENIAK enpresa kontratistari emandako barne-aginduetan ezarritakoa zorrotz gauzatu.
- Kontratuak gauzatzeko hitzartutako bitartekoak atxikitzea kontratura.
- Kontratuaren arduradunak eta VICTORIA EUGENIAko langile teknikoek emandako jarraibideak betetzea eta kontratuak VICTORIA EUGENIArekin modu koordinatuan gauzatea.
- Enpresa kontratistak proposatutako laneko metodologiaren eta kronogramaren arabera betetzea lanak, Baldintza Teknikoen Orriko 2. eta 3. Klausuletan ezarritako baldintza eta terminoetan.
- Baldintza Teknikoen Orriko 3. Klausulan ezarritako termino eta baldintzetan, dagokion urtea hasi baino 15 egun lehenago, gutxienez, kontratuaren hirugarren eta laugarren urteari dagokien jarduera-plana zehazten duten kronogramak aurkeztea.
- Zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak bere kontura lortzea. Halaber, enpresa kontratistak zerbitzua egiteko dituen gastu guztiak estali beharko ditu, eta mota orotako tasak eta zergak, jarduera garatzeagatik dagokion zerga eta kontratuaren indarraldian kontratua gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen zerga guztiak.
- Orri honen **11. Klausularen** arabera, behin betiko bermea eratzea.
- Lan esparruan indarrean dauden lege xedapenak betetzea (hitzarmen kolektiboa, ordainketak, eta abar), bai eta Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren esparrukoak ere. VICTORIA EUGENIAK ez du erantzukizunik edukiko aipatutako araudiak urratzen badira.
- Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarreni eragin ahal zaizkien kalte galera guztien kalte ordainak.
- Langile guztiak behar den bezala kontratatuta egongo dira eta alta emanda Gizarte Segurantzaren, enpresa kontratistaren kontura, eta ez da inolako erlazio juridikorik egongo langile horien eta VICTORIA EUGENIAren artean, ez kontratuaren indarraldian ez inoiz.

Edozein unetan eska dakioke VICTORIA EUGENIAK enpresa esleipendunari lan-kontratuaren kopia eta/edo Gizarte Segurantzako afiliazioaren kopia.



bestelako erakundeei dagokienez; eta (ii) kontratistak VICTORIA EUGENIAren ardurapean tratatu beharreko datu pertsonalak eskuratzeko aukera.

Testuinguru horretan, enpresa kontratistak berariaz aitortuko du badakiela nahitaez bete behar duela DBLOn adierazitakoa (batez ere 9., 10. eta 12. artikuluetan adierazitakoa), 1720/2007 Errege Dekretuan (DBLOA), abenduaren 21ekoa eta DBLO garatzeko araudia onartzeko denean, adierazitakoa eta aipatutako arauak garatzen dituzten gainerako xedapenetan adierazitakoa.

Testuinguru horretan, DBLOren arabera, enpresa kontratistak, tratamenduaren arduradun gisa, obligazioa du VICTORIA EUGENIArekin datuak eskuratzeko dagokion kontratua hitzartzeko, DBLOren 12. artikuluan eta DBLOaren 20. artikuluan adierazten den edukia eta eragina barne hartuta.

Datuak eskuratzeko kontratu hori VICTORIA EUGENIAk eta enpresa kontratistak lizitazio honen xede den kontratua sinatzen den unean hitzartzeko da eta eranskin gisa aurkeztuko da.

Edonola ere, eta datuak eskuratzeko kontratuan ezartzen dena alde batera utzita, kontratistak kontratazio honen xede diren zerbitzuak egiteagatik sortzen diren betebeharrak beteko ditu:

- DBLOn, DBLOAn eta kontratua esleitzen den unean edo kontratuaren indarraldiak irauten duen bitartean indarrean dauden gainerako garapen-arauetan xedatzen dena.
- Kasuan-kasuan segurtasun-neurriak hartuko ditu, DBLOan aurreikusitakoaren arabera.
- VICTORIA EUGENIAk eskatzen badu, VICTORIA EUGENIAk eta/edo datuen tratamenduaren arduradun den erakundeak tratatzen dituzten datuen eta erakunde horrek emandako dokumentazioaren konfidentzialtasuna eta integritatea ziurtatzeko hartutako neurriak deskribatzen dituen memoria bat aurkeztea.
- Segurtasun-neurri horiek gauzatzeaz eta gainbegiratzeaz zuzenean zein zeharka arduratzen den pertsona edo pertsonak jakinaraztea VICTORIA EUGENIARI.
- Langileei datuen babesari buruz indarrean dauden arauen ondoriozko betebeharren berri ematea.
- Enpresa kontratistak zein lizitazio honen xede den kontratuan parte hartzen duten langileek kontratuaren indarraldian ezagututako datu pertsonalen sekretu profesionala gordetzeko betebeharra dute.

### **23. JABETZA INTELEKTUALA ETA IRUDI ESKUBIDEAK**

SPKLTBren 301.2 artikuluan xedatutakoaz gain, kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzean sortutako/aurkeztutako edukien, eta, oro har, aipatutako zerbitzuak gauzatzean lortutako emaitzen gaineko Jabetza Intelektualaren eskubideei dagokienez, aurreikuspen hauek hartuko dira kontuan:

- Enpresa kontratistak eta bere langileek sortutako edukiak:

1/1996 Errege Dekretu Legegileak, apirilaren 12koa eta Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina onartzeko denak, ezarritakoaren arabera, enpresa kontratistari zegozkiokeen egile-eskubide moralei kalterik egin gabe, VICTORIA EUGENIArek izango da enpresa kontratistak eta bere langileek kontratazio honen xede diren zerbitzuak eskaintzean sortutako eduki guztien gaineko jabetza.

Aurreikuspen horien barruan sartzen dira, halaber, enpresa kontratistak kontratazio honen xedea eskaintzean sortutako eduki eta dokumentu guztiak, edozein euskarritan daudela: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak, euskarri plastikoak edo beste edozein.

Ondorioz, VICTORIA EUGENIArek izango dira eskubide hauek: erabilera-eskubidea, ustiapen-eskubideak (erreproduzitzeko eskubidea, banatzeko eskubidea, osorik edo zati bat jendaurrean ezagutzera emateko eskubidea eta itzultzeko, egokitzeko edo beste edozein aldaketa egiteko eskubidea), eta, oro har, enpresa kontratistak kontratazio honen xedea eskaintzean sortutako edukien gaineko jabetza intelektualaren ondare-eskubide guztiak. Horrela izango da legez ezarritako gehienezko eperako, eta VICTORIA EUGENIAk nahi duenean erabili ahal izango ditu, egokitzat jotzen dituen irizpideen arabera.

Edozein kasutan, enpresa kontratistak ezingo du bere izenean erregistratu aipatutako edukien gaineko Jabetza Intelektualaren eskubideen titulartasuna, Espainiako Erresumako Jabetza Intelektualaren Erregistroan edo munduko beste edozein antzeko erakunde batean.

Enpresa kontratistak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI ziurtatu behar dio aipatu diren edukien titulartasuna, erabilera baketsua eta ustiapena behar den bezala egingo duela. Edozein kasutan, esleipendunaren erantzukizuna dira kontratutik kanpoko hirugarrenek Jabetza Intelektualaren eta/edo Industrialaren gainean egin ditzaketen erreklamazioak, eta bere betebeharra da kontzeptu horiek direla eta VICTORIA EUGENIAk jasan ditzakeen kalte eta galerengatik kalte-ordainak ordaintzea aipatutako erakundeari.

- Hirugarrenek sortutako edukiak:

Enpresa kontratistaren betebeharra da bere kontura eta VICTORIA EUGENIAREN alde lortzea hirugarrenek sortutako edukiak ustiatzeko eskubide nahikoa, baldin eta kontratazio honen xede diren zerbitzuetan barne hartutako jardueretan erabiltzen badira, VICTORIA EUGENIAk Orri honetan aurreikusten den moduan erabiltzeko eta ustiatzeko. Funtsean, bitarteko inprimatuen eta/edo Interneten bitartez ustiatzeko.

Aurreikuspen horien barruan sartzen dira, halaber, hirugarren batek kontratazio honen xede diren zerbitzuak eskaintzean sortutako eduki eta dokumentu guztiak, edozein euskarritan daudela: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak, euskarri plastikoak edo beste edozein.

Bestalde, kontuan hartuta kontratazio honen xede diren zerbitzuak eskaintzen sortutako edukietan besteak beste pertsona fisikoen irudia eta/ahotsa erregistratuta egon daitekeela, enpresa kontratistaren betebeharra da aipatutako zerbitzuak eskaintzeko atxikitako pertsona fisiko guztiek grabaketa onar dezaten lan egitea eta VICTORIA EUGENIARI baimena ematea (i) euren irudia eta ahotsa erabiltzeko; eta (ii) gaur egun ezagutzen diren bitarteko teknikoen bitartez erreproduzitzeko, betiere Donostiako Nazioarteko Jazzaldiarekin erlazioanaturako jarduerak garatzen laguntzeko helburuarekin.

## 24. KONFIDENTZIALTASUNA

Esleipenaren publizitateari dagokionez, eta enpresa lizitatzaileri eman beharreko informazioari dagokionez Orri honetan xedatzen denaren kalterik gabe, VICTORIA EUGENIAK ezin izango du zabaldu enpresa lizitatzailerek konfidentzialtat jo duten informazioa, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Enpresa kontratistak, bere aldetik, kontratuak gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, baita Orrietan izaera hori ematen zaion informazioa eta berez konfidentziala dena ere.

Konfidentzialtasunak iraupen mugagabea edukiko du.

## 25. PENALIZACIONES

Enpresa kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, proposatu duen kronograman proposatutako edo adierazitako epeekiko atzeratzen bada, eta hala badagokio, Baldintza Teknikoen Orriko 3. Klausulan xedatutakoaren arabera, VICTORIA EUGENIAK aukera izango du, nahi bezala, kontratua suntsiarazteko, **32. Klausulan** adierazitako terminoetan, edo gauzatzen jarraitzeko erabaki dezake. Azken kasu horretan, kasuan-kasuan loteari dagokionez zenbatetsi den balioaren 1.000 euro bakoitzeko eguneko 0,20 euroren proportzioan.

Gauzatze akastuna egiten bada edo kontratuko beste edozein baldintza urratzen bada, kasuan-kasuan kalte eta galeren kalte-ordainez gain, eguneko 0,20 euro ordainduko dira kontratuaren balio zenbatetsiaren 1.000 euro bakoitzeko.

Zigor horiek metagarriak izango dira zinez eragindako kalte eta galerei dagokienez.

Kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, eta gauzatze akastunagatiko ez-betetzeak iraun bitartean, VICTORIA EUGENIAK edozein unetan utz dezake indarrrik gabe kontratua, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorak gauzatzeko, kenkariak egingo dira enpresa kontratistari ordaindu beharreko kopuruan, eta, hori ezinezkoa bada, behin betiko bermearen gainean. Kasu horretan, behin betiko bermeaz gaineko kopurua erreklamatu egingo da behin betiko bermea gainditzen duen kopurua.

Nolanahi ere, kontratua bertan behera utzi zein jarraitu erabaki, VICTORIA EUGENIAK egokitzat jotzen duen denboran bere bitarteko propioak erabiliz edo hirugarrenen bitartez zerbitzua eskaintzen jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, enpresa kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galerei eta Klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe.

## 26. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio baldin eta VICTORIA EUGENIAk aurretiatzko baimena ematen badu, zehazki eta idatziz. Edonola ere, lagapen-hartzaileak lege-betebeharrak eta baldintza-orri honetan VICTORIA EUGENIArekin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu eta ez du kontratatzeke debekurik izango. Gainera, kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko du, eta baldintza-orri honetan aurreikusitako giza baliabideak atxikitzeke konpromisoa hartuko du. Hori guztia lagapenaren xede diren eskubide edo betebeharrei dagokienez.

## 27. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio baldin eta VICTORIA EUGENIAk aurretiatzko baimena ematen badu, zehazki eta idatziz. Edonola ere, lagapen-hartzaileak lege-betebeharrak eta baldintza-orri honetan VICTORIA EUGENIArekin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu eta ez du kontratatzeke debekurik izango. Gainera, kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko du, eta, baldintza-orri honetan aurreikusitako giza baliabideak atxikitzeke konpromisoa hartuko du. Hori guztia azpikontratatu beharreko zerbitzugintzari dagokionez.

Enpresa azpikontratatistak enpresa esleipendunaren aurrean hartzen dute konpromisoa, hortaz, enpresa esleipendunak erantzungo du VICTORIA EUGENIAren aurrean eskaintzen duen zerbitzuagatik, betiere Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Orrian, Baldintza Teknikoen Orrian eta sinatzen den kontratuan adierazitakoari lotuta.

## 28. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

## 29. ENPRESA KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Enpresa kontratatistak izango du egiten dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikeriek, akatsek edo metodo desegokiek VICTORIA EUGENIAri edo hirugarren batzuei eragin diezazkieketen ondorioena ere.

Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz, hirugarrenei eragin ahal zaizkien edo langileek jasaten dituzten kalte eta galera guztien kalte-ordainak enpresa kontratatistak ordainduko ditu.

VICTORIA EUGENIAk ez du erantzukizunik enpresa kontratatistaren lege-ordezkarien edo zerbitzuak eskaintzen dituzten langileen egite edo ez-egiteen ondorioz hirugarren pertsoneri eragindako kalteen gainean.

## 30. KONTRATUA ETETEA

VICTORIA EUGENIAk kontratua etetea erabakitzen bada edo SPKLTBren 216. artikuluko 5. atalean xedatutakoa (aplikatu beharrekotzat ezartzen da berariaz) aplikatuta kontratua eteten bada, akta idatziko da eta, bertan, kontratua etetea ekarri duten inguruabarrak eta berori gauzatzearen egitatezko egoera azalduko dira.

Etetea erabakita, VICTORIA EUGENIAk enpresa kontratistari benetan izandako kalteen ondoriozko kalte-galerak ordainduko dizkio.

## 31. HARRERA

Kontratua guztiz beteko du kontratistak zerbitzugintza osorik egin duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta VICTORIA EUGENIAren adostasunarekin.

Hala ere, Baldintza Teknikoen Orriko 3. Klausulan aurreikusitakoarekin bat etorrira eta esleipendunak proposatutako kronogramarekin, kontratua gauzatzen den bitartean zatiko harrerak egingo dituzte; bertan, kontratuaren helburuaren barruko lanak bilduko dira.

Zatiko harrera bakoitzean eta guztizko harreraren ere, VICTORIA EUGENIAk erabakiko du enpresa kontratistak egindako zerbitzua egokitzen ote den berori gauzatu eta betetzeko ezarritako baldintzetara, eta, hala badagokio, kontratatutako zerbitzuak gauzatzeko eta horiek jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio.

Enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, VICTORIA EUGENIAk horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Betiere, **25. Klausulan** aurreikusitakoari kalterik egin gabe; edozein kasutan, VICTORIA EUGENIAk dagozkion zigorak eskatu ahal izango ditu, bai eta kalte eta galeren kalte-ordainak ere, kontratuaren xede den prestazioa eskaintzeko atzerapenik izan bada edo gauzatzeko akastuna egin bada.

## 32. KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLTBren 223. artikuluko a) -85. artikuluan xedatutakoa kaltetu gabe-, b), d), f), g) eta h) hizkietan adierazitakoak eta 299. artikuluan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharratzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako edozein kasutan, automatikoki egingo da suntsiarazpena; nahikoa izango da VICTORIA EUGENIAk enpresa kontratistari jakinarazpena bidaltzea.

Hori guztia kasuan kasu egingo den kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe izango da, eta jarraian xedatutakoari jarraituz.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagozkion dokumentazioa

aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, VICTORIA EUGENIAK hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Kontratua deuseztatzen bada, enpresa kontratistak, printzipioz, benetan egindako lan guztien prezioa jasotzeko eskubidea du.

Enpresa kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik indarrrik gabe uzten bada kontratua, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 20ren pareko kantitatea zergapetuko da VICTORIA EUGENIAren alde, izaera metagarriarekin, kasuan-kasuan ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain.

Bi kopuru horiek behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen kopurutik kenduko dira eta, hala badagokio, soberan geratzen den kopuruaren gainean erreklamazioa egingo da.

### 33. ARAUBIDE JURIDIKOA

Prestaketari eta esleipenari dagokienez, kontratua honakoek arautuko dute: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orriak, Baldintza Teknikoen Orriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, VICTORIA EUGENIAren kontratatzeke barne-instrukzioek eta SPKLTBn horri buruz ezarritako arauak (esleipen boterea duten eta herri administrazioa ez diren sektore publikoko erakundeen artean arautze bateratura atxikita ez dauden kontratuatarako).

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dute kontratua: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orri honek eta Baldintza Teknikoen Orriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, SPKLTBren I. liburuko V. tituluari kontratuak aldatzeari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio kontratuari.

Horrez gain, SPKLTB, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa eta urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zati batez garatzeko dena, eta HAKLEO aplikatzekoak izango dira Orri honek testu arauemaile horietara espresuki jotzen duenerako.

### 34. JURISDIKZIOA

Ordena jurisdikzional zibilak izango du kontratua prestatu, esleitu, ondorioak eragin, bete eta iraungiarazteari dagokionez aldean artean sortzen diren gorabeherak ebazteko eskumena.

Donostia / San Sebastián, 2014ko maiatzaren 6a

Amaia Almirall López de Luzuriaga andrea

